

Zenbaki honetan

Kristina Mardaras Sedrun bertsolari, irakasle eta kultur eragileari Miren Amuriza bertsolari eta idazleak egindako elkarrizketa luzea dakar *Historia bizia* sailaren aurtengo saioak. Bi bertsolari aurrez aurre, belaunaldien arteko transmisioari segida emanez, memoria ariketa hainbat geruzarekin aberastuz.

Sail honetako elkarrizketetan ohi den bezala, Kristina Mardarasez bizitza eta ibilbide kulturala biltzen du elkarrizketak, Iurretako Oromiño auzoko haurtzarotik abiatuta: Herri Gaztedi elkartearen izandako parte hartzea, 60ko hamarkadako Elizaren berriztatze garai betean; bizitza osoko militantzia herrigintzan: ikastolen mugimendua, lehenengo alfabetatze eta euskalduntze ikastaroak eta AEK, bertso eskolen sorrera Durangaldean, Gerediaga elkartearen, Arrate Irratiko irratsaioak, Udako Euskal Unibertsitatearen has-tapenak...; irakasle gisa egindako lan ibilbidea: Basauriko ikastolan lehenik, ondoren Otxandion, Zornotzan eta, azkenik, Iurretako Maiztegi eskolan; paper fabrikako bulegoetan ere langile izandakoa; Irakasletza eskolako ikasketak Bergaran; Iurretako ikastolaren publikazio prozesuaren kontakizuna; *Hik Hasi* aldizkariaren sorreran parte hartzaile; bertsolari ibilbidea: Euskal Herriko Txapelketa Nagusiko lehen emakumea, 1986an; eta baita bertsozale ibilbidea

ere: antolatzaile, epaile eta gai-jartzaile gisa egindako lanak... Azken buruan, herri libre eta hobe baten ametsa beti gogoan, herrigintzaren lan eta borroka bete-betean murgilduta, izenburura eramán dugun lelo nagusi batek gidatzen du Kristinaren ibilbide osoa: «Unibertsitateak irakasten ez dituen gauza asko irakasten ditu militantziak».

Mardarasek bere bizi ibilbidean landutako alor nagusietakoa bertsolaritza izan dela aintzat hartuta, lotura zuzena du horrekin solasaldiaren ondoren *Artikuluak* sailean datorren ekarpenak. Bertan, bertsolaritzaren azken aldiko korrante sinboliko berrienak bertsogintzaren tradizio hurbilarekin duten loturatik abiatuta aztertzen ditu Kepa Matxainek, betiere etorkizun hurbilari taxua eman diezaioketen egiturazko mugimenduak hautemateko asmoz.

Zenbakia irekiz eta itxiz, *Jakin filosofatzen* sailean Olatz Mitxelena Larreta idazle eta itzultzaileari beti bezain elkarrizketa iradokitzailea egin dio Itziar Ugartek, eta, *Egunen gurpilean* sailean, Shu Otero, Jokin Bergara eta Cira Cresporen ekarpenak ditugu. Crespo, gainera, azken aldiz. Hiru urtetan zehar artíkulu bikainak egin ondotik, honakoa du azkena. Esker ona besterik ez dugu harentzako.